

Arrasate

P R E S S

1999ko
Otsailak 5
438. zenb.



Santageda bezpera

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA ELKARRIZKETA: AITOR GARCIA
EUREN IKUSPUNTUTIK: PILAR ETXANIZ • KIROLAK: CHALLENGETROFEOAK

HEZIBIDIEren aldeko jokoa errenta segurua



**HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA**

BILERA INFORMATIBOAK:

- **Haur Hezkuntza**

(Lau ikastolentzako bilera bakarra):
99-II-11, Monterronen

- **Lehen Hezkuntza (L.H.):**

San Frantzisko Xabier: 99-I-28
Almen: 99- II-2
San Viator: 99-II-9

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.):**

San Frantzisko Xabier: 99-II-10
Almen: 99-II-4
San Viator: 99-II-3

Matrikulazio

epea

zabalik!!

ARRASATEKO BULEGOA:

Biteri Etorbidea, 15 behea
Tel: 943 79 88 75
20500 ARRASATE
GIPUZKOA



**HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA**

Behin behineko aitzakiak

Noizbait "Gastechero colaborador" izendatu ninduten eta orrialde hau aprobetxatuz, Gaztetxeo asanbladako kide batek idatzitako gutuna plazaratuko dut, berarekin ados nagoelako.

Jarraian datorren gutuna, abenduaren 26an Gaztetxean jazotakoaren harira doa. DJ festa bat ospatu zen eta bukatzen ari zela, armatuta zeuden kaputxatu piloak agertu ziren (Ertzaintza, noski).

Gutun hau, berandu dator. Honen arrazoi nagusia da honek ez duela izan nahi ohiko barkamen gutuna. Jaia berandu bukatu bazen ere, tankera honetako jai oso gutxi egin izan dira, eta ohikoena beranduago bukatzea da.

Gauzak hobeto ikusteko, goazen iraganera: 92. urtean, ondoko bizilagunek, haserre (ulergarria izanik),

"Behin behineko kobazulo bat eskaintzen dute, autonomia gunerik txikiena ere desagertaraziz"



Iker Barandiaran

gutun gogor bat bidali zuten udaletxera. Asanbladako partaide batzuk udaleko eta bizilagunen ordezkariekin bildu ziren. Kontzertuak egitea galarazi nahi ziguten. Guk erantzun gehien konponbidea Gaztetxea intsonorizatzea zela (teknikari baten esanetan, hormen loditasuna dela eta, ez da oso garestia). Udalak, ordea, Gaztetxe honen

kokapena "probisionala" zela argudiatu zuten (Dagoeneko zortzi urte daramatzagu, behin behineko egoera berean). Jarraian, behin betiko kokapena zein izan zitekeen eztabaidatzen hasi ginen. Gauzak egin bitartean, Gaztetxeoko ordutegien momentuko adostasun batera heldu

ginen. Urteak pasata eta frontoiaren gaiak aurrera egiten ez zuenez, berdin segitu dugu. Bat-batean, hirutarikoaren azpijokoan bitartez, Loiti heldu eta

frontoiaren gaia bizkortu egin zen; baina Gaztetxearentzat eta beste taldeentzat hitzartutako lokalak ez ziren ageri. Ez zituen inork erabiliko.

Horren ordez, Gaztetxea hortik atera nahi dute. Gutaz ahazten ez direla diote, baina momentuz ez toki aproposik ezta diru nahikorik ere ez dutela esanez, behin behineko "kobazulo" bat eskaintzen dute, beraiek eskua ahal beste sartuz eta autonomia gunerik txikiena ere desagertaraziz. Bitartean, justu Gaztetxea dagoen eraikinean Kultura etxe bat (!?) egiteko 120 miloi ageri dira aurrekontuetan eta 2 miloi, gurekin hitz egin gabe, Gaztetxea non eta nola jartzea pentsatzeko.

Inozoak garelakoan? Argi dago orain artekoa konponbideak bilatu baino adabakinak jartzea besterik ez dela izan.

Bukatzeke, bizilagunei esan nahi dizuet ulertzen dugula zuen egoera deserosoa, baina ezarritako behin behinekotasun egoera arduragabe honek duela errua azpimarratuz. ■

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, Zuzendaria: Jose Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiztegorri (Tel.: 943 79 02 26)

Diseinua: Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemak:** Gonzal Lande. **Bokaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Altor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Unibarrren, Bixente Pagoda, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko konzertatua. **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta initzen erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.

Azala: Arrasate Press.

Arrasateko Udalerria laguntza. Gipuzkoako Foru Aldundia laguntza. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila laguntza.

25
urte betetzen ditu aurten Ikerlanek

Ikerlan 1974an sortu zen Eskola Politeknikoan. Eskolako zenbait ikertzaile, hainbat kooperatiba eta Euskadiko Kutxaren elkarlanaren emaitza izan zen. Lehen urratsak Eskolako "gordelekuan" egin eta gero, 1977an gaur egungo eraikuntzara igaro zen. Manolo Quevedo izan zen Ikerlaneko lehen zuzendaria

ITURRI ONETIK

Gizarte etxea ala zaharren etxea?

Aurreko batean Jokin Iria izan genuen telebistan. Uribarri-Erguingo Zaharren Etxeko lehendakaria ez zegoen pozik, erretiratuek ezin dutelako erabili Usaetxe plazako Gizarte Etxean dagoen orotariko gela jokoan egiteko. Biharamonean Miren Lana Uribarri-Erguingo auzo alkatea izan genuen eta oso bestelako ikuspegia erakutsi zigun.

Uribarri-Erguingo Gizarte Etxean hiru atal daude gaur egun: Auzo alkatetza, Zaharren Etxea eta Gizarte Etxea. Zaharren Etxekoek eremuaren %70 erabiltzen dute: taberna, bilera gela, bulego bat eta bi biltegi txiki dituzte. Auzo alkatetzak bulego bat. Eta Gizarte Etxeak bilera gela eta orotariko gela. Azken hau omen da arazoa.

Denborak eta elkarriketak konponduko dute auzia.

"Batzorde Eragileak kezka nagusi bat izan du San Joan Bataiatzailearen parrokia zaharberritzeko orduan: atzera ezina den erabakirik ez hartzea"

Jose Antonio Altuna

EURO BAT = 166,386 PTA

Hirugarren astea da astekari honetan agertzen dela, zenbaki handiekin idatzita, "166,3 pta", eta garbi dago euro baten balioa 166,386 pezetakoa dela. Hemen ez dago borobiltzerik! Ezta moztu beharrik ere!

435. astekarian, zenbaki txikietan, 166,38 pezeta irakurtzen zen, baina garbi erakutsi behar duzue hiru hamartarrak erabiltzen ohitu behar garela.

436. zenbakian, 150 pezetaren truke 0,19 euro jartzen duzue (0,90 euro da zuzena) eta jarraian, borobiltzea dela eta, %10 garestiagoa atera daitekeela. Azken hau ere ez da zuzena, aipatutako zifrekin 0,21 edo 0,99 euro ematen duelako eta ez da ikusten borobiltzarik. Dena dela, zentimo bateko txanponak izango dira eta posible izango dugu edozein kopuru ordaintzea.

Azkenengo alean zuzenketak ikustea espero nuen, baina nire asmoak ez direnez bete, animatu egin naiz eskutitz hau idaztera.

Badakizue hemendik aurrera euro baten balioak (pezetatan adierazteko) sei zifra behar dituela: hiru osoak eta hiru hamartarrak.

Mila esker

S.M.

ENPRESA BATZORDEAK LANGILE BATZORDEARI:

Enpresa Batzorde honek Pertsonal Zuzendaritzak sinatutako idatzi bat jaso zuen, Pedro Merchan Roper langilearen kaleratze agindua proposatzen zuena. Hori dela eta, zera adierazi nahi dugu:

Kaleratzea enpresaren autoritarismoaren ekintza da; enpresarena soilik. Gure lagunaren kaleratze agindua ez da egozten zaizkion arrazoien gatik gertatu, arrazoi hauetako batzuegatik lehenago ere zigorra jasoa baitu. Azkena da larriena, lanpostuaren eta soldataren etetea hamar egunean, eta hau bete du dagoeneko. Langileak errekurtsioa ere jarri dio, eta inork ezin du ahotsa altxatu auzitegiaren dagoen zerbaiten aurrean. Horregatik, Langileen Batzorde hau ez dago ados enpresaren erabaki horrekin, eta ez dio onespena emango jokaera honi.

Baliteke enpresaren eta langile kaleratuaren arteko harremanak munduko onenak ez izatea, baina hori ez da enpresak erabaki hain larria hartzeko arrazoiak. Erabaki horrek, gainera, eragina du enpresako gainontzeko langileengan. Langile honek beste edozeinek bezala betetzen du bere lanarekin. Urteen joanean gertatutako izaera arazoak eta laztasunak, kasurik txarrean ere bi alde arazoak dira, eta enpresak ere hein handi batean horren erantzukizuna du.

Aurrez esandako guztia- rengatik, Gelma S.A. ko Langile Batzordea ez dago ados enpresak Pedro Merchan Roper langileari jarri dion kaleratze aginduarekin. Langile eta bere nagusien artean egon daitezkeen desadostasunek irtenbidea izan dezakete, bi alde ardean fede ona dagoenean.

Langile Batzorde honek elkarrizketaren bidea defen-

datzen du, eta ez disziplinarena. Hori dela eta, Enpresa Zuzendaritzari Pedro Merchan Roper langileari jarritako kaleratze agindua erretiratzea eskatzen dio, honi egotzitako ekintzek irtenbidea izan baitezakete alde bien artean fede ona baldin badago, hitz egiteko bilduz eta elkar ulertzera iritsiz.

*Gelma S.A. ko
Langile Batzordea eta
Enpresa Batzordea.*

GELMAKO LANGILEEI

Urtarrilaren 27an lantegian egin zen batzarraren emaitzaz nire poza agertzeko zuzentzen naiz zuengana.

Denbora luzea igaro da, agian gehiegi, enpresaren aurrean bateginik agertu ez garela. Sentitzen dut nire kaleratzea izatea horretarako aukera eman diguna, baina hala ere... *bazen garaia!*

Enpresa-Batzordeak Batzarrerako deia egin du eta ni jasatzen ari naizen arazorekin elkartasuna adieraztea proposatu dizue; honen ondorioz, batzarrak, kalean jarri nauen zuzendaritzaren jokarrera jasangaitz eta diktatoriala salatu ahal izan du. Oraingoa niri tokatu zait eta hurrengoan nork daki, behintzat gaur ez badugu erantzun solidario bat ematen.

Batzarraren gehiengo batek —%82k, alegia—, bozkatutako hiru proposamenak bereganatu ditu: bi orduko lan etealdia egitea, lantegiaren aurrean egiten diren kontzentrazioei laguntza ematea, eta, baita ere, otsailaren 6an egingo den manifestaldia. Batzarrak izkutuko botoaren bidez hartu du erabakia, Zuzendaritzak hala xe nahi izan duten arren. Honek, enpresa eta langileen arteko harremanen aldaketaren

atarian gaudela esan nahi ote du?. Hala izan bedi!

Zuen erabakiak nireganako elkartasuna adierazten du, baina, aldi berean, inpunitatearen kontrako adierazpena ere bada. *Nahikoa da!* esan duzue eta hitz honen bidez langileen duintasuna sendotu ahal izan da.

Egungo gizartean lan eskubidea ukatzea, nolabait ere bizitza ukatzea da, inor ez izatera kondenatzea, hain zuzen ere. Horregatik uste dut inori ez litzaiokeela ukatu behar. Zapalketa eta eraso sindikala jasatzen dugunoi, guri, justizia ukatzen zaigu eta kalera-tuak izaten gara. Baina soberan egon behar luketen bakkarrak beste batzuk baitira: aberatsagoak eta boteretsuagoak izateko lagunurkoa zapaltzen dutenak, hain zuzen ere.

Pedro Merchán, "Papi"

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 5

• Gaeuz eta egunez: Korkuera, Musakola

Larunbata, 6

• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin

Igandean, 7

• Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina

Astelehena, 8

• Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde

Astearte, 9

• Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala

Asteazkena, 10

• Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres

Osteguna, 11

• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

Zer deritzozu txikitoak izan duen prezio igoerari?

Aurreko astean txikito normala 5 pta garestitu zen, eta txikito berezia 15 pta.



Nora Gutierrez
(35 urte)
Langilea

Nik zuritoak edaten ditut batez ere, eta ez zait horrenbeste ardua ardoaren igoera.



Asier Osinaga
(26 urte)
Langilea

Larregi igo du, eta hori Euskal Herrian aspaldiko ohitura denez, astakeria iruditzen zait bat-batean hainbeste igotzea.



Maider Osinaga
(25 urte)
Langilea

Asko igo du, baina txikitoek horregatik ez diote txikitoak hartzeari utziko.



Jose Mari Astigarraga
(60 urte)
Parrokoa

Laster Visarekin joan beharko dugu txikiteora. Ibiltzen denak han behar du jubi-lazioaren ordainketa erdia.



Pablo Agirre
(73 urte)
Erretiratua

Niri kalitatezko ardoa edanez gero, berdin zait apur bat gehiago ordaintzea.



Begoña Aiastui
(62 urte)
Langilea

Asko igo du, baina ohitura dutenek berdin-berdin segituko dute txikiteoan.



Consuelo Arroyo
(45 urte)
Etxekoandrea

Bizioa da. Beraz, txikitoa edan nahi duenak ordaindu egin beharko du.



Antxon Ansoategi
(49 urte)
Pentsioduna

Kalitate oneko ardoa edatea hobe da, nahiz eta piska bat gehiago ordaindu.



EGUZKIGRAF
inprimategia



Industrialdea 1-0-4
E-mail: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI

TRATAMENDUAK:

- Minak
- Giharrak
- Zainak
- Hezurak

MEDIKUNTZA
ERREUMATOLOGIA
MASAJEAK

Olarte, 43 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 01

Arrasate

LANAK

SANTA TERESAN

Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZIÑON

Etxeak egiteko lanak.


FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak segitzen dute.




Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 5



LARUNBATA 6



IGANDEA 7

Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta horrek euria ekar lezake. Temperatura ordea, pisika bat epelduko da.

Larunbatean ere antzeko eguraldia izango dugu; lainotua eta tarteka euri tantaren bat edo beste.

Zeruak lainoturik segituko du igandean ere. Baina agian ez dugu atzeririk erabili behar izango.

Ilargia



Ilbehera

Otsailaren 8an, astelehena ilbehera izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%99,3



Distantziak

Arrasate										
121	Baiona									
690	579	Bartzelona								
57	170	620	Bilbo							
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela						
72	50	529	119	1.088	Donostia					
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz				
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea			
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril		
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris	

USTEAK USTE

Eduki eta eman

Daukanak daukanetik eta ez daukanak bihotzetik, esaten du esaera zaharrak.

Arrasaten horrelako zerbait gertatzen ari da azkenaldi honetan. Horra hor hiru adibide esan nahi dudana azaltzeko.

Azken lau urteotan arrasatearrek 110 milioi pta eman dituzte San Joan Bataiatzailearen parrokia zaharberritzeko, gehienek hilean 10.000-15.000 pta.ko ordain sariak emanaz.

Hiru bat hilabetean, bestalde, Baietz Plataformak 29 milioi pta bildu ditu Arrasaten, Gara egunkaria finantzatzeko. Kasu honetan, diru gehien 100.000 pta.ko akziotan bildu da.

Jabi Mayor gaztearena da hirugarren kasua. Jakin zenetik Jabilo oso gaisorik geratu zela eta diru mordera behar zela sendabide egokia emateko, banakoak zein elkarte eta erakundeak sekulako laguntza ematen ari zaizkio familiari. Txoznak, dantzaldiak, musikaldiak, zozketak... denetik antolatu da, Jabiloren familiari laguntzeko.

Arrasatearrek eduki badaukate, baina ematen ere badakite.

Joxe Aranzabal



Irakaskuntza Deba Garaian

* Pilar Etxaniz

Erreformaren ezarpenak irakaskuntzaren berrantolaketakarri du. Lehen Hezkuntzako Mapa burutua dago, nahiz eta sektore publikoak —baita Deba Garaia- ren kasuan ere— berarekiko desadostasun nabarmenak azaldu.

Administrazioak ez dio 0-3 urte arteko zikloaren zezenari adarretatik heldu Oinarrizko Irakaskuntzaren berrantolaketan. Jakina da jaiotze tasaren jaitziera dela eta, irakaskuntza pribatuaren eta publikoaren arteko matrikulatze gerra nabaria izaten dela urtero. Horrela, bi urteko ikasleentzako gelak irekitzen hasi ziren ikastetxe guztietan eta gaur egun, edozein ikastetxetan matrikula daitetzeke bi urteko haurrak. Adin txikiagoen “jabe” zein eta nola egingo den da orain jokoan dagoena. Oraingoan, bi urtetik beherakoen hezkuntzaren monopolioa zentru pribatuek dute; Adminis-

trazioak —garestia irteten zaiola eta— ostrukarena egiten baitu.

Premiazkoa da 0tik 3 urtera bitarteko zikloa era koherente batean antolatzea eta edonoren eskura egongo den eskaintza publikoa jartzea. Eta hau da Administrazioak berandu baino lehen bermatu beharko lukeena.

Bigarren Hezkuntzan (BH), berriz, erreformaren ezartzeak bi ondorio nagusi izan ditu:

- Lanbide Heziketako eta Batxilergo Institutuen arteko zatiketa gaintzea, bi zentru mota hauek bat eginez eta Erreformako Ikastetxe berriak sortuz.

- Eskola curriculuen egokitzapena. Honen ondorioz, espezialitate batzuk desagertuko dira eta berriak sortu. Beraz, irakasle batzuek beren espezialitatea galdu eta lanpostua kolokan ikusten dute; beste batzuei, berriz, ikastetxez aldatu beharra suertatuko zaie egituratze prozesu honetan...

Eusko Jaurlaritzak ez du Erreforma finantzatzeko plangintza ekonomiko berezirik egin eta bere ezarpena inprobisazioz josita dago; formazio plangintzak falta dira...

Honek guztiak egonezin handia sortu du irakasleengan. Eusko Jaurlaritzak atzera egin du EILAS, ELA eta LABekin adostutako atxikipen plangintzan, bategite prozesuak geldiarazi ditu, ikastetxeetako languneak definitzeko utzi...

Honek behin behinekotasun egoeran uzten du Bigarren Hezkuntza, etorkizunerako hainbat erabaki hartzea eragoziz.

* EILAS sindikatuko kidea.

“
Jaurlaritzak ez du Erreforma finantzatzeko plangintza ekonomiko berezirik egin
”

Sili Sili
%50eko beherapenak
Obrak direla eta, Ferrerias kaleko 28.ean gaude

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

5

ostirala

■ ZINEA

54, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

7

igandea

■ ZINEA

Practicamente magia, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

8

astelehena

■ ZINEA

Practicamente magia, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

9

asteartea

■ ZINEA

Practicamente magia, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

6

larunbata

■ ZINEA

54, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ 1934AN JAIOTAKOEI

1934an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute. 13:00etan Frantzizkotarren elizan meza izango dute eta 14:30etan bazkaria, Udalpe elkartean.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Hendaiako Skunk taldearekin reggae festa egongo da gaueko 22:00etan, Gaztetxean. Taldeak bere bigarren diskoaren aurkezpena egingo dute.

■ BARON ROJO

Fuckin What eta Baron Rojo talde mitikoa izango dira Bergarako Jam aretoan, 22:00etatik aurrera. Sarrera bertan 1.500 pta.

■ INFORMAZIO BILERA

Arrasate Institutuak informazio bilerak egingo ditu arratsaldeko 18:00etan, Erguin, San Andres, Musakola eta San Martin Herri Eskoletan, azken hau Aramaion.

■ INFORMAZIO BILERA

Arrasate-Aretxabaletako Insititutuak deituta, bilera egingo dute DBHko eraikuntzan, 18:00etan. Ondoren, eskola ikusteko aukera izango dute gurasoek.



Jabiloren alde

Folklore jaialdia antolatu dute Jabiloren alde Amaia antzokian. Jaialdia Maider Egues eta Jon Anduezak aurkeztuko dute. 19:00etan Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek emango diote hasiera jaialdiari. 19:15etan, Corazon de Encina elkarteko dantza taldearen txanda izango da. 19:30etan, Al-Andalus elkarteko Sueños de Andalucía dantza taldearen ekitaldia

izango da eta segidan Jabiloren aldeko errifaren zozketa egingo da. 20:00etan Al-Andaluseko García Lorca antzerki taldea taulatuko da eta 20:15etan, Lore Gazteak eta Arrostitzek egingo dute dantza. 20:30etan, Galiziar dantzak ikusteko aukera izango da eta 20:45etan Corazon de Encinako Extremadura dantza taldeak emango dio amaiera jaialdiari.

10

asteazkena

■ BATZAR OROKORRA

Arrsateko Institutuko Guraso Elkarteak batzar orokorra egingo du arratsaldeko 18:30etan, institutuko areto nagusian. Elkartearen egoera ekonomikoa, ikasturte hone-tako aurrekontua eta hainbat txosten izango dira hizpide.

■ **INAUTERI EMANALDIA**
Otsailaren 12an, ostirala, Arrasate Musikal inauterietako kontzertua eskaniko du Arrasate Musikaleko areto nagusian. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

■ **MARGO ERAKUSKETA**
Ramon Aranzabal margolariak bere lehenengo erakusketa ireki du gaur arratsaldean. Lanak Bergarako Errotalde jauregian daude ikusgai eta astebetetz egongo dira hantxe, astelehenetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara eta larunbat eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ **IGERILEKUAK ITXITA**
Eusko Jauriaritzaren araudiaren arabera egin behar diren lanak direla eta, otsailaren 8tik 14ra bitartean igerilekua itxita egongo da.

■ **HEZIBIDEREN OHARRA**
Seme-alabak Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator ikastoletan edo Umezaintzan matrikulatu nahi dituenak, jakin Hezibidek ireki egin duela matrikulazio epea. Otsailaren 12a arte egongo da zabalik. Matrikula eigiteko Hezibidek Biteri Kaleko 15ean duen bulegora edo zuen aukerako ikastolara joan zaitezket.

■ ARETXABALETARREI ABISUA

Aretxabaletako Deba Garaiko interzeptorea eta bere adar osagarrien proiektua dela eta, otsailaren 1etik Araba ibilbideko 29an eta 32an dauden autobus geralekuak itxi egingo dira eta otsailaren 8tik aurrera, berriz, Errekabarren kalean dagoen autobus geralekua kendu egingo dute. Abisu berririk jaso ezean, autobus geraleku bakarra izango da, Gipuzkoa plazan.

11

osteguna

■ ZINEA

Estación central de Brasil, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ HITZALDIA BIOETIKA

San Juan de Dios ospitaleko abadeak, hitzaldia eman-go du bioetikari buruz. Gai-xotasuna izango du mintzagai, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Hitzaldira mundu guztia dago gonbidaturik.



Eski irteera

Besaideren Eski taldeak eski irteera antolatu du San Josef zubirako. Informazioa eta izen ematea Besaideko egoitzan astelehen, astearte eta asteazkenetan, 18:30etatik 19:30etara edo 943 79 84 74 zenbakian.

Gas instalazioak aztertzeke gomendioak

Azken egunotan, Revigas eta Resigas, gasa instalatzen duten bi konpainiatako ordezkariak Arrasaten izan dira, gas instalazioak aztertzen. Enpresa biek Eusko Jaurlaritzaren baimena dute, baina izan duten jokaerak protesta franko eragin ditu herritarren artean. Izan ere, ez bide dute legeak kasu hauetarako agintzen duen prozedura bete.

Hori dela eta, Arrasateko Udalak ohar bat kaleratu zuen zenbait gomendio eginez.

Udalak gogorarazi du gas butanoko instalazioak bost urtetik behin aztertu behar direla eta gas naturalekoak lau urtetik behin. Erabiltzaileak askatasun osoa du nahi duen enpresa baimenduna aukeratzeko.

GOMENDIOAK

- Egiatzatu noiz aztertu zenuen azkenengoz gas instalazioa.

- Tokatzen bazaizu, esku-bide osoa duzu zeuk nahi duzun enpresa baimenduna aukeratzeko.

- Inor agertzen bazaizu gas aztertzailerak dela esanez, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren baimena erakusteko eskatu.

- Instalazioa aztertzen hasi baino lehen, eskatu aurrekontua. Enpresa beharturik dago hori egiten.

- Lana bukatutakoan, eskatu faktura eta egiaztatu ondo dagoela.

- Azkenik, eskatu aztertu izanaren ziurtagiria momentuan emateko. Dokumentu hori oso garrantzitsua da, izan ere, azterketaren emaitza agertzen du eta lehen adierazitako epeetan azterketa egiteko obligazioa bete dela agertzeko balio du



MUko agintariak joan den urteko errepasoa egiten.

MUK Kudeaketa Berritzaileko Gela sortu du

Mondragon Unibertsitateak, MCCk eta Euskadiko Kutxak Kudeaketa Berritzaileko Gela aurkeztu zuten asteazkenean Otalora etxean. Enpresen gestioan erabiltzen diren metodoak ezagutaraziko zaizkie enpresetako exekutiboek, urtero egingo diren ikastaro haue-tan.

Ikastaro hauen egitaraua urtero eguneratuko da, premien arabera. Elkarloturik dauden bost eremuek osatuko dute ikastaroa: estrategia, marketina, pertsonak, finantzak eta industria. Eremu

bakoitzak bi mintegi izango ditu, 32 ordukoak.

Ikastarook ETEoko Enpresa Zientzietako Fakultateak zuzenduko ditu. Unibertsitate irakasleak eta hainbat enpresatako zuzendari eta kudeaketa aholkulariak arituko dira irakasten, martxo-tik aurrera.

MU-REN LEHEN URTEA

Mondragon Unibertsitatearen lehen urteari errepasoa egin zioten joan den ostira-lean Ignacio Lakunza errektoreak eta Adrian Zelaia

lehendakariak. Pozik agertu ziren emaitzekin: 2.500 ikasle matrikulatu ziren 97-98 ikasturtean, unibertsitateak bere hiru fakultateetan eskaintzen dituen 13 titulazioak egiteko. Unibertsitateak 2.328 milioi pta.ko aurrekontua izan zuen.

Etorkizunari begira, Mondragon Unibertsitateak titulazio berriak ezarriko ditu Ingeniaritzan eta Enpresa Zientzietan eta bere hiru fakultateak euskalduntzeko plan estrategiko bat jarriko du abian.

ESK sindikatuaren batzarra

ESK sindikatuak batzarra egin zuen asteazkenean udaletxean. Gipuzkoako ordezkariak bildu ziren osoko bilkura aretoan. Hiru gai izan zituzten hizpide: Lan Harremanetarako Kontseiluaren proposamena, ordezkapen kontratazioak eta Gelmako kalera-tzea. 35 orduko lan kontratuaren alde eta lan orduetatik kanpo-ko orduak kentzearen alde jo behar dela aritu ziren batzarrean,

baina Inem erakundeak eta gobernu zentralak egingo dutena ikusi beharko dutela adierazi zuten. Ordezkapen kontratuen inguruan, emakumearen lan arazoari irtenbiderik ematen ez dion

proposamena dela salatu nahi zuten, ordezkoak beti gizonak izaten direla eta.

Hirugarrena Pedro Merxanen kaleratzea izan zen. Urtarrilaren 22an Gelmako zuzendaritzak kaleratu zuen.

Ordutik hona elkartasun adierazpen ugari izan dituu. Asteazkenean bere sindikatuko lagunena izan zuen. Udaletxetik Gelmaraingo kale ager-raldia egin zuten. Larun-batean ere egingo dute Portailoian, 18:30etan.



Astelehenean prentsaurrean.

otsailak 13



piztu

zeurea!

urte

Udal garabia apirilerako

Udal garabia datorren apirilean-edo hasiko da lanean. Kalendarian gaizki utzi eta garabiak eramatean dituen ibilgailuak berreskuratzeko 8.500 pezeta ordaindu beharko dira. 6.000 autoa berreskuratzegatik eta beste 2.500 isun moduan. Hori da udalak astelehenean egin zuen osoko bilkuran hartutako erabakieetan aipagarriena.

EAK, EAJK eta PSE-EEK aldeko botoa eman zuten. HBK, aldiz, kontrakoa. Onartutakoaren arabera, udalak azpikontratatu egingo ditu enpresa baten zerbitzuak.

Garabiak jasotzen dituen ibilgailu guztiak Gelmako parkinaren ondoan dagoen eremu batera eramango dira.

Ibilgailu arinak berreskuratzea merkeagoa izango da: 2.000 pta.

STEE-EILAS irabazle Deba Garaiko eskola publikoetan

Asteazkenean bozketa eguna izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan. Deba Garaiko irakasleek eta bestelako langileek Bergarako institutuan eman zuten botoa. Egun lasaia izan zen eta orain lau urte baino botoemaile gehiagok eman zuten botoa: guztira 271. Orduan baino 68 gehiago.

Deba Garaiko emaitzak aztertzeko orduan, bi xehetasunek ematen dute atentzioa. Batetik, STEE-EILAS sindikatuaren nagusitasuna. Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatua izan zen irabazle, 105 botorekin. Bigarren ELA izan zen, 63

botorekin; hirugarren LAB 50 botorekin; laugarren CCOO 36rekin; eta bosgarren CT-UGT 17 botorekin.

Konparatuz gero aurtengo emaitzak orain lau urtekoekin —beti ere Deba Garaian, noski—, ikus daiteke ELA izan dela gehien hazi den sindikatua. Baita CCOO ere. Gainerakoek,

asko ez bada ere, galdu egin dute.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, berriz, ELAK eta LABek lortu zituzten ordezkari sindikal gehien. Atzetik CCOO, STEE-EILAS eta UGT agertu ziren. Hiru herrialdeei dagokienez, CCOO izan zen hazkunde handiena izan zuen sindikatua.

DEBA GARAIKO EMAITZAK

	Botoak	%	Bilakaera
STEE-EILAS	105	38,7	- 0,7
ELA	63	23,2	+ 4,0
LAB	50	18,4	- 1,3
CCOO	36	13,2	+ 1,2
UGT	17	6,2	- 1,0

...esan zeuk ere BAI EUSKARARI!!

Arrasateko ERDU - AEK euskaltegia EUSKARA IKASTAROAK

- Euskalduntze ikastaro maila guztiak, goizez eta arratsaldez.
- EGA, goizez eta arratsaldez.
- ALFABETATZE ikastaroak, arratsaldez.
- Matrikula epea: Otsailak 12.

Udalaren laguntzaz.

Beka Sistema.

izena eman **ae**kn

Garibai Etorbidea, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 69

Santagedak, Gesalibarren


Santa Agata egunarekin batera, Gesalibar auzoko jaiak datoz. Baserri auzoen artean berau izango da ezagunena. Izan ere, Aita Menni psikiatrikoa hantxe dago eta nahiz eta askok gustuko ez izan, esan liteke dela ehun urtetik hona, horixe dela auzoaren ezaugarri adierazgarriena. Auzoaren erdi-erdian egon izan da beti, lehen bainu etxe moduan, eta orain ospitale gisa.

Gesalibar baserri auzoak berrogei bat etxe dauzka. Errukane Aperribai auzo alkateak adierazi digu, gainera, Gesalibar ezin dela askoz gehiago hazi. Urbaniza daitezkeen zonaldeak, psikiatrikoarentzat erabili dira beti eta horrek gutziz mugatzen du auzoaren garapena.

Santagedak dira jai nagusiak eta Gesalibarko parrokia, santa honen omenezkoa da.

EMAKUME TALDEA

Orain bi urte pasatxo hasi zen lanean. Auzoko giroa pizteko sortu zen. Psikiatrikoa



Emakumeek josi ezezik hizketan ere egiten dute.

erdian egotean, etxeak nahiko sakabanatuta daude. Ondorioz, toki edo zeregin bereziren bat izan ezean, auzokideen arteko harremanak zailak dira. Gizonezkoak Jentil Ola elkartearen biltzen dira, baina emakumezkoen eta umeen egoera bestelakoa da. Orain bi urte auzoko emakumeek talde bat sortu zuten Garagartzako emakumeekin batera. Sukaldaritza eta eskulanean ikastaroak antolatzea izan zuten lehenengo lana.

Hogeita bost bat lagun biltzen dira taldean. Orain-

tsu dantza eta orratz lanen ikastaroak antolatu dituzte. Ikastarook Garagartzan egiten ari dira.

PERTSONA EZAGUNAK

Canovas del Castelloren hilketak sona eman zion Gesalibari. Angiolillo anarkista ezagunak hemen hil zuen Canovas del Castillo. Orduko bainuetxea psikiatriko bihurtu zuten. Denok eza gutzen ditugu Aita Menni eta San Joan de Dios ospitalak. Euskal Herritik kanpo ere ezinbesteko izen bihurtu dira psikiatriari dagokionez.

Jai nagusiak

Santagedak dira Gesalibarko jai nagusiak. Berez Santa Agata eguna otsailaren 4an da. Osteguna denez, asteburuan ospatuko dituzte jaiak.

Santa Agataren omeneko meza batekin hasiko dira jaiak, eta etxaleroak jaurti ostean, bertso eta kantu afaria izango da Angel Mari Peñagarikano eta Maialen Lujanbio bertsolariekin. Ondoren, Txinparta taldeak alaituko du gau parteko giroa.

Larunbat goiza haurrentzat izango da. Txaxtilipurdik sekulako jokoa antolatu omen ditu gazetxoentzat. Egurdiko 12:00etan, berriz, auzoko hildakoen aldeko meza izango da parrokan. Goizari bukaera emanaz, auzoko koroa etxe-etxe abiatuko da Santageda kantuan. Bildutakoa jai batzordeak gestionatzen du, jaiak antolatzeko.



EDERTU

Ileapaindegia • Solariuma
Depilazioa

San Andres auzoa
Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Gazte zaitetz prezio berriekin!

Jubilatuentzako prezio bereziak astelehen, astearte eta asteazkenetan:

- **Orraztu:** 1.100 pta.
- **Kolorea eman, moztu, orraztu...:** 3.000 pta.
- **Solariuma:** Eskaintza berezia martxoaren 27a arte 10 saio: 5.000 pta.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak —aldiko kontratuak egiteko— hautaketa prozesu hauek deitu ditu:

• Gazteria teknikaria

Titulazioa: Unibertsitateko diplomatura.
Euskarazko 3.HE.

• Delineantea

Titulazioa: LHII, delineazioa.
Euskarazko 3.HE.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea: otsailaren 8tik 16ra, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

astea bi hitzetan

■ Ibai-Artek zuzendaritza berria izango du

Arrasateko Ibai-Arte Denda eta Zerbitzu Elkarteak bilera egin zuen ostegun iluntzean batzokiaren jangelan. Bi urte hauetan Ibai-Arte zuzendu duen taldeak bere lanaren berri eman zuen. Urtero egiten den bezala, gainera, berritza egin zen zuzendaritza batzordearen erdia.

Horrekin batera, Rosarito Zeziaga azken urte bi hauetako lehendakariak ere kargua utzi zuen, elkartearen araudiak agintzen duen bezala. Atzoko bileran sei ordezkari berri aukeratu ziren zuzendaritza batzordea osatzeko: Beatriz Oinetakoak, Lore lurrindenda, Arregi Enmarkazioak, Zabalera lurrindenda, Zubiaga bitxidenda eta Troco.

Aste honetan seguruenik berriro bilduko dira eta orduan aukeratuko dute lehendakari berria.

■ Arrasateko neska bat hilda auto istripu batean

M.I.G.B. 25 urteko neska mondragoetarra auto istripu batean hil zen ostegunean Atxondon, Elorriotik gertu. Mondragoetarraren Ford Orion autoak aurrez aurre jo zuen Renault Espace furgoneta bat. Zauri larriekin eraman zuten Galdakaoko ospitalera, baina bidean hil zen. Goian bego!

■ Debasport hilabetekaria

Extra aldizkariko taldeak *Debasport* kirol hilabetekaria kaleratu zuen joan den larunbatean. Izenak adierazten duen moduan,

Debasportek Deba Bailarako kirolen berri emateko jaio da. 24 orrialde ditu eta 100 pta. tan saltzen da. Juan Ignacio Mata izango du zuzendari.

■ Batzarra presoengintza inguruan

Nola lortu euskal presoak Euskal Herriratzeari? Galdera horri erantzuteko Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideak erakundeek batzarra antolatu zuten larunbat goizean Monterronen. Juan Emilio Barrenaren ustez presoak Euskal Herriratzeko premia larriaz ohartarazi behar zaio jendeari. Aitor Etxabek, aldiz, PPri eta Espainiako Gobernuari presioa egin behar zaiela esan zuen, bakoitzak hobetoen uste duen moduan.



JARRAI ADECCOREN AURKA

Central Hispano Bankuak Adeccoren azpian duen kutxazaina simaurrez beteta agertu zen ostiral goizean. Jarraik protesta egin nahi izan zuen aldi bateko lan enpresen aurka. Sebero Altube plaza inguruan bestelako seinaleak ezarri zituen, Adecco salatzeko. Arratsaldean, berriz, zabor poltsak bota zituzten enpresaren atari barrura.

“Kolpeleungailu bat egiten duzu eta uste duzu autogintzan ari zarela, baina munduko merkatua itzela da, mugitzen dituen zenbakiak zorabiatzeko modukoak dira. Gu, berriz, hainbat alorretan ari gara, etxeko tresna elektrikoetan eta osagaietan, kasu. Alor horietan asko dugu eginkizun eta errazago egiten zaigu, dagoeneko badakigulako gauzak nola egin. Ez dugu bazterten beste alor batzuetan ere sartzea, baina beti alor horiek ondo ezagutzen dituen baten baten eskutik. Ikasi beharrekoa ikasita duen baten eskutik, alegia. Bestela, alor berri batean sartzeak izugarritzko kostoa du, ikasi beharra duzulako”.

ANTONIO CANCELO
Gara, 1999.1.31.

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

Arrasate Irratiarekin elkarlanean
martxoak 9 - apirilak 20 (20 ordu)
astearte eta ostegunetan
19:00 - 21:00
Matrikula: 4.000 PTA / 2.000 ikasle eta langabeentzat

irradi kontrola

gazte ikastaroak

izen ematea: Gazte Bulegoan Tel: 943 77 00 65

dantzak

Karibeko dantzak

- a) hastapen maila: apirilak 19 - maiatzak 19
 - b) sakontze maila : maiatzak 24 - ekainak 21
- irakaslea: Julio Lantigua
ikastaro egunak: astelehena eta asteazkenak,
19:30etatik 21:30etara
tokia: Musakolako Gazte Txokoa
matrikula: 4.000 PTA / 2.500 ikasle
eta langabeentzat

Euskal dantzak

Lore Gazteak taldearekin elkarlanean
a) 10-14 urte bitartekoei zuzendua:
ostiazkenetan, 18:30-19:30
matrikula: 1.000 PTA

b) 15 urtetik gorakoei zuzendua:
martxoaren 5etik San Juanak arte
ostiraletan, 19:00-20:30
matrikula: 1.000 PTA

argazkigintza

ASArekin elkarlanean
hastapen maila
apirilak 17 - ekainak 5 (21 ordu)
larunbat goizetan, 10:30etatik 13:30etara
matrikula: 5.000 PTA / 3.000 ikasle
eta langabeentzat





TXISTU DOINUAK MEATZERREKAN

San Baleixo basilizan Ibon Aperribai apaizaren meza ostean, Meatzerrekakoek galletak eta mistela jan zituzten. Jan eré, txistu doinuak lagun zituztela eta konturatu orduko gainera! Pentsa, guk argazkia atera orduko bukatuta zituzten!



BESAIDAKOAK SAGARDOTEGIRA

Urtero egiten dute Besaide mendizale elkarteok sagardotegira irteera. Aurreko igandean ere jan-edan ederra egin zuten Azpeitiko sagardotegi honetan. Bakailao arrautzopila, saiheskia eta txuletak bustitzeko nahi adina sagardo izan zuten. Hori bai! Aurretik lau orduko mendi buelta egin zuten.

KANTU HOTSAK KULTUR ERROTAN

Domeka iluntzean Xabier Muguruza musikari irundarra izan zen Amaia antzokian. Baxujolea eta pianojolea lagun zituela, bere azken diskoko kantak abestu zituen. Bi Luma talde aretxabaletarra ere izan zen. Ez dakigu zeinek abestuko zuen hobeto, baina jendea gustura gelditu zen entzundakoaz.



EUSKAL BIDEOAK KATIXIMA IRAKASTEKO

Aspaldi ikusi barik genuen Xabier Zubizarreta abade mondragoetarra. Donostiako Gotzaitegiko Haurren Idazkaritzako arduraduna da. Bere zuzendaritzapean elizbarrutiak 36 bideo ateratu ditu euskaraz, haurrekin kristau ikasbidea lantzeko.



GASTEIZTARREN BISITA

Astelehen goizean Gasteizko AEKko Arana euskaltegikoak izan genituen bisitan. Egun hori jai hartu zuten Arko bisitatzeko, baina ikasi ere egiten dute. Pentsa, 10. urratsean daude dagoeneko!



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



Txotx egin!

Astelehenetik
asteazkenera
enkarguz
Ostegunetik
igandera zabalik

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA

Zabor bilketa zerbitzurako kamioi gidari bat kontratatu behar da behin behinerako

Eskaerak eta dokumentazio osagarria otsailaren 10erako aurkeztu beharko dira, arratsaldeko 15:00ak baino lehen, Deba Garaiko Mankomunitatean.

Arrasate Pasealekua, 5 behea • ARRASATE
Tel: 943 79 33 89/943 79 33 99

Santa Ageda bezpera du



1955eko otsailaren 5ean atera zuten Santa Agedako argazki hau.



Zortzigarrenekoak 1968ko martxoan.

Kantau ala errezau? Horixe da baserriko andra-gizonek entzuten zuten lehenengoa Santa Agedako abesbatza etxe aurrera etorzean. Dolua zuten etxe atarrietan txapela kendu eta errezatu egiten zen. Gaur egun ere, zenbait lekutan gordetzen da ohitura. Arrasaten, ordea, errezau barik kantuan egitea izaten da nagusi. Jasotzen den dirua herrian beharra dutenen artean banatzen du Caritasek. Baina, nolakoak izaten ziren garai bateko Santa Ageda bezperak?

Jose Mari Mendizabalek gogoratzen duenez, Arrasaten Santa Ageda bezperan eskian atera ziren lehenengo aldian, ospital zaharraren alde dirua batzeko izan zen. Orduan, 1950ean gutxi gorabehera, talde ugari ateratzen ziren. Baina denak bildu eta talde bakar batean irtetea erabaki zuten, Luzio Markaide Coral Mondragonesako sortzaile eta Eskoriatzako abesbatzako

zuzendariaren zuzendaritza-pean.

“Nik orduan 17 bat urte izango nituen. Parrokiako abesbatzako kideak bildu zituen Luzio. Guztiak gizonak, baina ondo hautatuak: Fertxu, Pepe Castellanos, Lauri Letamendi, Maño...”

Lagun talde honek kopletan ateratzea erabaki aurretik, Arrasaten baziren herriko Santa Ageda abesbatzak ere. Auzoetan betidanik egon izan da otsailaren 4an kantuan ateratzeko ohitura. Dirudienek, garai batean otsailaren hasieran ospatzen zen udaberriaren etorrera. Geroago elizak hartu zuen bere gain jai hau eta udaberriari ongiatorria emateaz gain, uzta ona izan zedin eskatzen ateratzen ziren kale-ira, makilekin lurrari kolpeak emanez.

OSPITALAREN ALDE

Sasoi hartan famatua zen “Zortzigarrenaren koadrilak” erabaki zuten Santa Ageda bezperan kalera ateratzea, ospital zaharraren alde dirua jaso-

tzeko. Juanito Arzamendik prestatu zuen abeslari taldea. Gainera, denak ez ziren kantoreak. Jose Mari gogoratzen duenez, “baziren inoiz abestu ez zutenak ere, eta horiei erakusteko lana hartu zuen Juanitok. Jesus Etxebarria, Zurdoren anaia, edo Txabin Bolinaga... ziren horietako batzuk eta haiek ere abesten! A ze nolako entseiuak egin genituen! Kontzertu baterako balitz bezala!”

Zortzigarrenaren koadrilan hogeita hamar bat lagun biltzen ziren. Izena nondik zetorkien jakin nahian, Jose Mari eskatu nion azaltzeko: “Azken mundu gerran bazen *Octavo Ejército* zeritzan soldadu talde bat. *Tutti de classi* biltzen zuten taldeak eta gure lagun taldea ere horrelakoa zen, denetik zegoen: medikuak, peoiak... Demokrazia osoa bizi zen gure lagun taldean, zentzu horretan”.

BI TALDETAN

Lagun asko biltzen zirela eta, bi taldetan ateratzea erabaki

zuten zortzigarrenekoek. Biak ondo zuzenduta gainera! Talde bat David Arzamendirekin eta bestea Juanitorekin.

Lehenik eta behin, parrokiaren meza goizeko 08:00etan. Ondoren batzuk Bedoñarantz joaten ziren eta besteak Kanpanzar alderantz. Kanpanzarantz joaten zen taldea Zigorrolatik itzultzen zen herrira. Handik Muxibarrera joaten ziren, beste taldearekin bat egitera. Muxibarreko taberna izan zen urte askoan bazkari lekua. Menua goizean zehar baserriaz baserri bildutako jakiak izaten ziren: ogia, txorizoa, odolosteak... “Kajatik dirurik ez gastatzeagatik”, dio irribarre batekin Jose Mari.

Bazkalostean, bi taldeak Uribarri auzorantz joaten ziren elkarrekin. Gero herrira itzultzen ziren, tabernaz taberna eskatzen. Eguna benetan luzea egiten zuten lagun hauek. Izan ere, gaueko hamarrak-hamairak alde arte aritzen ziren tabernetan. Baina kontua ez zen hor amaitzen, afaldu ere

gu Euskal Herriko eguna



Iñaki Mendizabal.



Javier Bengoa.

1953an Gesalibarko eliza ondoan.

egin behar zen eta! Afaria Zentru Katolikoan izaten zen, gaur egungo Jose Letona plaza ondoan. "Afaría ere, ematen zigutenarekin egiten genuen!"

Baina dena ez zen ondo pasatzea. Jasotako dirua zenbaitu behar izaten zen eta Jose Marik dioenez, bera eta beste bi lagun aritzen ziren horretan, "beste inork ez zuelako nahi izaten!"

Lehen ere aipatu dizuet jasotzen zen dirua ospitalera eramaten zutela. Baina dirua ez zen Santa Ageda bezpera egun horretan eramaten. Hurrengo asteko igandean joaten ziren ospitalera gure kantoreak. "Ospitalera denok joaten ginen eta han zenbait kantu abesten genien hiruzpalau ahotsetara, *Elurra Teilatuan* eta antzekoak abesten genituen. Juanitok berak gogor egiten zigun eta sekulako emaldiak eskaintzen genituen!"

Lan aipagarria egiten zuten gure lagunek ospitalarekin, baina garai hartan politikariei ez zitzaizkien ondo iruditzen

nonbait honelako laguntzak. Jose Marik gogoratzen duenez, eskean atera ziren lehenengo udalarekin. "Udalak ospitalari diru laguntzaren bat ematen zion eta mojek bestelako diru iturririk izanez gero, udalak deskontatu egiten zien, eurentzat portzentaia bat hartuz. Hori dela eta, guk ematen geniena ere deskontatzen saiatu ziren. Hori ikusitakoan, erostera joan ginen eta dena ospitalari eman genion, honela udalak ezin zuen eta, ezer hartu!"

HARRERA EZIN HOBEA

Fraideak San Frantziskora etorri zirenean gure lagun taldearekin biltzea erabaki zuten, dirua eskatzeko ospitalaren alde. Eta ez zen diru gutxi jasotzen. Jose Marik gogoratzen duenez, lehenengo aldian 100.000 pta baino gehiago bildu zituzten. Izan ere "bazen emaille bat, Mariano Espino eraikitzailea, diru dexente ematen zuena eta haretxengana jotzen genuen beti! 50.000 pta.ko txeke bat eman zigun

behin! Baina dirua baino, jateko ematen zigutena izaten zen onena zenbaitetan. Aranguren baserrian, esaterako, *Peixotoren* amandreak sagar erre-ak egiten zituen mutilentzat, berak esaten zuen bezala!"

EGUNA ARGITU AHALA

Gaur egun ere, goizeko 08:00etan biltzen dira Santa Agedako kantoreak. San Joan parrokian meza entzun eta hantxe abesten dute lehenengo koplak. Handik bitaldetan banatu eta batzuek Zigorrolara eta besteek Bedoñara jotzen dute. Eguerdian talde bietako abeslariak kalean elkartzen dira, alde zaharrean ere kantu jira egiteko eta 14:00etan udaletxera.

Bazkaria gaur egun Leintze ehiza eta arrantza elkartean izaten da. Ostean ikastetxetan eta Aita Menni ospitalean aritzen dira, bitaldetan. Iluntzean, 19:00ak aldera, Monte tabernan elkartu eta kalez kale ibiltzen dira, azken kantua herriko plazan abesteko. ■

Marijo Deogracias

AGATE DEUNA

Onetzi dezatela guziak etxe ontako sendia Apal ta txiro dabilzantentzat oso ugari dut eskerrak Martiri zaindu maitea dago errukiz bete berak oparo emango degu osasuna ta pakea Aurrez baimena eskatzen diot etxeko nauzi jaunari Agate deunaren gordialdia abestuzera noa ni

GIPUTZ ZAHARRA

Nere kristauak badakizute nor degun Santa Ageda Lege Zarreko usariuak kantuan gatoz atera. Gobernadore traidore orrek zeten-tzia du ematen Plazan iltzera eramateko ez baldin bazan mudatzen

Santa Aguedak erantzun zion Ez naiz batere bildurtzen, zuen idolo-jaungoiko faltz etzait batere gustatzen

Eriotzara eraman zuten Eurak nai zuen moduan

Penak prankurik pasatu arren Agudea firma zeguan

Agoniako ordu Santuan Jesusi eska zeguan Orain glorian goratzen degu Aingeruakin Zeruan

Adios bada jente noblia orra kantatu bizitza Borondaterik baldin badago limosna bila gabiltza

Limosna ere artu degu eta orain abia gaitian

Adios iñkan ez degu eta agur ikusi artian!

Kabia altzariak: geroa prestatzen

Musakolako Kabia altzari-dendak lau haizetara aldarrikatu du gauzatu berri duen egitasmoa. Elkarlanerako hitzarmen bat sinatu du Irungo Todo Mueble enpresarekin. Alberto Pereda Kabiako buruak azaldu digunez, hitzarmenak hiru helburu ditu: elkarlana bultzatzea alor bereko beste denda batzuekin, Gipuzkoan zabaltzea eta finkatzea eta bezeroari soluzio hobek, merkeagoak eta ordaintzeko errazagoak eskaintzea.

Hitzarmenaren lehen ondorioa izena egokitzea izango da. Hemendik aurrera Todo Mueble Kabia izango da Arrasateko dendaren izena. Irungoarena, berriz, Todo Mueble Irun. Eta etorkizunean taldean sartzen diren dendek izenaren bigarren tokia bete-ko dute.

HISTORIA

Arrasateko Kabiaren historia Enkartazioetan hasten da, Bizkaian. Albertoren birraitonak, Manuel Peredak, altzariak egiten zituen. Ramon semea Sara baserriko alaba batekin ezkondu zen eta Arrasatera etorri zen bizitzera.

Lehen lantokia Maala errebaletan jarri zuen, gaur egun Beinke arropadenda dagoen lekuaren inguruan. 50.ean gaur egungo etxea eraiki zuen, Musakolan. Mue-



Alberto Pereda aita-semeak. Orain gazteak hartu du lekukoa.

bles Pereda zuen izena. 1967an Kabia altzari denda sortu zuten, Juan Carlos Gerra plazan.

1970ean banaketa sortu zen taldean: Pereda familia dendarekin geratu zen. Langile talde batek, berriz, Mue-

bles Pereda kooperatiba sortu zuen Garratz baserriaren ondoan, Musakolan. Aldi honetan Ramonen semeek, Albarok eta Albertok, eraman zuten negozioa. Gaur egun erretiraturik daude eta Albertoren semeek, Alber-

tok eta Urtzik, hartu dute lekukoa.

Sei lagun ari dira lanean Kabiari, Alberto Pereda apaintzaile gaztea buru dutela. Sukaldekoak izan ezik, era guztietako altzariak saltzen dituzte, Valentzia ingurutik ekarritakoak gehienak. Valmasedatik —aitonaren jaioterritik— ere ekartzen dituzte, baina gutxiago. Orain arte Deba Garaian eta Aramaion saldu izan dute gehiena. Gero- ra begira, berriz, ikusi egin behar zer ematen duen hitzarmenak.

TODOMUEBLE KABIA

- **Arduradun nagusia** Alberto Pereda
- **Apaintzailea** Ainhoa Galarraga
- **Muntatzaileak** Luzio Askasibar
Urtzi Pereda
- **Administratzailea** Rosa Serrano
- **Saltzailea** Mari Karmen Ibar

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralean
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 08 07

FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78



Parrokia apirilean edo, inauguratuko da

Parrokia zaharberitzeko lanak amaitu dira. Lanak zuzendu dituen Batzorde Eragileak orri batzuk zabaldu ditu iazko abenduaren 31 bitarteko lanen eta diru kontuen berri emanez. Orri horietan bukatutzat jotzen da azken lau urteotan erabili den kuota sistema.

Hauxe da, zaharberitze proiektua 1990ean hasi zenetik, Batzorde Eragileak kaleratu duen bosgarren oharra.

GASTUAK ETA SARRERAK

Orain arteko gastuak 511 milioi pta.koak izan dira. Hori guztia ordaintzeko, Batzorde Eragileak hainbat diru iturri izan ditu: Arrasateko Udalak 148 milioi pta eman ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak 136 milioi pasatxo. Herritarrek 110 milioi jarri dituzte, gehienak kuota bidez. Zenbait erakundek ere eman dute dirua: 36 milioi. Parrokiak berak ia 40 milioi jarri ditu. Eta eliztarren artean egindako

diru bilketen bidez beste 2 milioi jaso dira. Diru asko, jende askok emandakoa.

Herritarren erantzun ona ikusirik, Batzorde Eragileak bukatutzat jo du azken lau urteotan erabili den kuota sistema. Ez da gehiago erabiliko. Hori bai, donazioetan jasotzen den dirua onartuko da. Kalkulu guztien arabera, 2000. urtean ordainduko dira

zaharberitze lanek eragindako zor guztiak.

Hasiera-hasieratik mondragoetarrez osatutako Batzorde Eragile bat egin zen, zaharberitze lanak zuzendu dituen. Aditu askoren iritiz, eredugarria izan da batzorde honek egin duen lana eta lortu dituen emaitzak.

Parrokiaren inaugurazio ofiziala apirilean edo, egingo da.



Arrasateko parrokia.

Euroa

Noiz kobratuko dut soldata eurotan?

Beranduenik 2002ko urtarrilean. Baliteke Europako zenbait erakunde eta enpresa data hori baino lehenago hastea. Ulertzekoa izango litzateke multinazionalak, esaterako, gainerakoak baino lehenago hastea, diru bakarrak izugarri erraztuko baitu haien kontabilitatea. Administrazioa, aldiz, trantsizio leunaren aldeko da eta 2002a arte ez ditu funtzionarioen soldatak eurotan ordainduko.

Euro baten balioa

166,386 pta



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®

pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Kirolaritasuna

Bukanak - Pepelus taldeen arteko norgehiagokan izan ginen joan den asteburuan eta hantxe atera genuen asteko irudia. Bi taldeek seina berdindu zuten, baina kirolaritasuna zer den badakitela erakutsi zuten. Bukanak taldeko jokalaria mina hartu zuen eta bere aurkariak izan ziren, kirolaritasunez, lurretik altxatzen lagundu ziotenak.

Laburrak

■ ADI EMAITZEKIN

Zuetako askok ikusten duzue Mondrasport astelehenero. Hori dela eta, Zaldibarko emaitzak entzun bazenituzte, harritu egingo zinateketen, ziur! Izan ere, gure berriemaileek hanka sartu zuten eta Itxarori sekulakoa egin zioten. Esan zituen emaitza gehienak gaizki zeuden. Hori dela eta, barkatu eragozpenak!

■ FIGAROREN EZTEIAK

Rex 23 eta AC Surkos taldeen arteko hamahirugarren jardunaldiko norgehiagoka atzeratu egin da. AC Surkos taldekoek egin behar hobea aurkitu dute asteburu horretarako. Txoritxo batek kontatu digunez, AC Surkos taldekoek ezkontza dute nonbaiten eta ezin izango dute Zaldibarreko betenharrekin kunplitu. Zorionak

ezkongaei, gure partetik!

■ ATZERATUTAKO NORGEHIAGOKAK

Bederatzigarren jardunaldian jokatu ez zen partidatako bat jokatu zen joan den asteburuan. Leya - Aldibi, hain zuzen ere. Lagun onak direla eta, berdinketarekin konformatu ziren eta bosna amaitu zuten norgehiagoka.

■ DAGOENEO SAILKATUAK

Lau talde sailkatu dira jadanik txapelketako bigarren aldirako. A taldean, Orlando Piratas eta Lontxo Tabernak lortu dute dagoeneko bigarren aldirako txartela. B taldean, Txantxiku Kirolak liderra da sailkatua. D taldean, berriz, You Know pasatu da txapelketaren hurrengo zatira.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berri.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRAT.	12	12	0	0	69	25	24
LONTXO TAB.	12	9	2	1	67	28	20
AC SURKOS	12	8	3	1	68	42	19
XHASSS UGARTE	12	8	2	2	73	41	18
PEPELUS	12	7	4	1	49	36	18
INSERT COIN	12	8	1	3	49	44	17
ALDIBI	12	7	1	4	72	33	15
LEYA	12	6	1	5	44	39	13
KOM. ALPARGAT	12	5	1	6	61	34	11
KE OXTIAS	12	4	2	6	39	34	10
SAUKE. SCREAM	12	4	2	6	27	34	10
SERENGETI HC	12	4	1	7	36	52	9
BUKANAK	12	3	1	8	41	65	7
ALAI GOZOKIAK	12	3	1	8	34	58	7
BALON ROJO	12	2	2	8	25	61	6
REX 23	12	2	0	10	30	70	4
ROTOR BOLBO.	12	1	2	9	25	78	4
MAKAI	12	2	0	10	28	64	4

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berri.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	12	11	0	1	99	25	22
IRATI STS	12	9	1	2	65	28	19
NARANJA MECAN.	12	8	2	2	80	43	18
GARAJE OSKAR	12	8	2	2	51	27	18
KKJAURI	12	8	2	2	52	33	18
LOS HEREDIA	12	8	1	3	28	34	17
AURRERA BOLIE	12	7	0	5	48	36	14
KOKA JUNIORS	12	5	3	4	32	35	13
DKB	12	6	1	5	44	47	13
DIEGO ANTONIO	12	4	4	4	41	52	12
ZOTZ	12	5	2	5	47	41	12
AT CELAYA	11	4	1	6	32	43	9
POTOSORRI	11	4	1	6	29	67	9
LAUTERBRUNENN	12	1	4	7	22	41	5
BORROCK&ROLL	12	2	2	8	20	30	5
ATERPE KAFE.	12	1	1	10	20	54	3
PUB ARROGOI	12	1	0	11	7	30	2
ETXE MOBEL	12	0	1	11	23	74	1



Hurrengo partidak

Otsailak 6, larunbata

- Zaldibar**
 09:50 DKB - Irati STS
 11:00 Los Heredia - KKJauri
 12:00 Sokoakoak - Branka Tab.
 13:00 Bukanak - Aldibi
 14:00 EtxeMobel - Koka Juniors
 15:00 Orlando - Alai Gozoki.
 16:00 Gar. Oscar - Txantxi Kir.
 17:00 Insert Coin - Rotor
 18:00 Potroak - Aita Menni
 19:00 Sauke. - Xhasss Ugarte

Iturripe A

- 14:00 Decadencia - Totem
 15:00 Makai - Komando Alpar.
 16:00 Cons. Luso - Jotakabau

Iturripe B

- 14:00 Fraguél Gol - You Know
 15:00 Leya - Serengeti HC
 16:00 EPEH - Betraye

Otsailak 7, igandea

- 09:50 Potrosorri - Zotz
 11:00 Jako al Rey - Bar Nuevo
 12:00 Dribling - Kamasutra
 13:00 Lontxo Tab. - Pepelus

Atsedena:

- A taldea:** Ke Oxtias!!!
B taldea: AT Celaya, Aurrera Bolie, Diego Antonio, Naranja Mecanica
D taldea: Eusko Label

Emaitzak

A TALDEA

- Bukanak 6 - Pepelus 6
 Lontxo Taberna 0 - Aldibi 6
 Insert Coin 3 - Xhasss Ugarte 8
 Saukelu scream 1 - Ke Oxtias 1
 Rex 23 2 - Serengeti HC 3
 Orlando Pir. 2 - Kom. Alpargat 1
 Leya 4 - AC Surkos 7
 Balon Rojo 0 - Makai 1
 Rotor Bolbo. 2 - Alai Gozoki. 6

B TALDEA

- Borroak&Roll 0 - Irati STS 1
 DKB 5 - AT Celaya 4
 Los Heredia 1 - Lauterbrunnen 0
 Aurrera Bolie 2 - Naranja Mec. 4
 Etxe Mobil 3 - Zotz 5
 Garaje Oscar 2 - Diego Antonio 2
 Potrosorri 2 - Koka Juniors 2
 Aterpe Kafetegia - Pub Arrogoi
 KKJauri 4 - Txantxiku Kirolak 6

D TALDEA

- Cons. Luso 2 - Aita Menni 6
 Potroak 6 - Jotakabau 3
 Dribling 10 - Totem 2
 Decadencia 2 - EPEH 3
 Fraguél Gol 10 - Bar Nuevo 7
 Jako al Rey 3 - You Know 4
 Betraye 7 - Eusko Label 1
 Kamasutra 1 - Branka Taberna 3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berri.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	11	11	0	0	58	21	22
AITA MENNI 2010	11	8	1	2	45	30	17
JOTAKABAU	12	8	1	3	33	28	17
DRIBLING	11	7	2	2	58	37	16
POTROAK	11	7	2	2	54	33	16
EPEH	11	6	3	2	41	41	15
TOTEM	12	6	1	5	47	34	13
BRANKA TAB.	11	4	4	3	46	38	12
FRAGEL GOL	11	4	3	4	41	39	11
SOKOAKOAK	10	5	0	5	33	35	10
KAMASUTRA	11	4	2	5	50	34	10
BETRAYE	11	4	1	6	39	41	9
BAR NUEVO	10	3	2	5	37	40	8
DECADENCIA	11	2	3	6	23	24	7
JAKO AL REY	12	2	3	7	38	47	7
EUSKO LABEL	12	0	0	12	25	93	0
CONS. LUSO	12	0	0	12	19	74	0

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Lore
 Lurrindegia
 Olarte kalea, 10 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 52 50

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
 Biteri, 8 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 Boda eta banketeak
 Tel.: 943 79 91 84
 ARETXABALETA

MONDRA TALDEKO JOKALARI BERRIA

KEPA PAJARES

“Mondraren proposamenak erakarri ninduen. Mondra beti da Mondra”

— **Non aritu zara orain arte?**

— Arrasatera etorri aurretik San Inazio taldean nentzen. Lehen, Aurrera de Vitorian, Haron eta Alavesen ere jokatu dut.

— **Nolatan etorri zara Mondrara?**

— Jabik deitu zidan. Lagun handiak gara. Lehen ere Aurrera taldean berarekin ibili nintzen. Proposamenak berak erakarri ninduen, Mondra beti da Mondra. Gipuzkoako preferentzen maila handia dago.

— **Noiz arte fitxatu duzu?**

— Oraingoz denboraldi amaiera arte.

— **Non jokatzen duzu?**

— Erditik gorako lekuetan jokatzen dut. Beti jokatu izan dut hortxe eta hori da atsegin dudana.

— **Zer moduz orain arte?**

— Hiru norgehiagoka jokatu ditut eta gustura nabil. Talde polita dugu eta ondo ari garela uste dut.

— **Sailkapenean gora egingo du Mondrak?**

— Bai, ziur. Ez asko, baina igoko gara.

— **Igandean Atxabalpen jokatuko duzue**


— Irabazi beharra dugu. Ez dut Urola taldea ezagutzen, baina taldekideek ezagutzen dute.

— **Bide batez, taldeki-deekin zer moduz?**


— Oso ondo. Ondo hartu naute. Batzuek lehen ikusita ezagutzen nituen, inoiz eurekin jokatu dudalako.

— **Gogorra da Gasteiztik Arrasateraino etortzea?**

— Astean hirutan entrenatzen dugu eta ez zait gogorra egiten. Bidaia eroso da. Ez zait luze egiten.



SASKIBALOA
Azken partida



Senior mailako Arrasate Saskibaloi taldeak lehen norgehiagoka jokatu zuen joan den asteburuan, mailaz igotzeko kanporaketetan. Danelek eta Zesarrek zuzentzen dituzten mutilek, ordea, ezin izan zuten irabazi. Ia partida osoan aurretik joan ziren markagailuan, baina azkenean 82 eta 70 galdu zuten, Arrigorriagako Padurararen aurka.

Asteburu honetan lehen aldiko azken norgehiagoka izango da. Etxean jokatuko dute, Askatuak taldearen aurka. Honek galdu egin zuen joan den asteburuan. Ez denez partida esanguratsua, mondra-goetarrek bigarren faserako entrenamendutzat hartuko dute, sailkapeneko hirugarren tokian daude eta. Norgehiagoka larunbatean izango da, arratsaldeko 19:15etan.

ko liga jokatzen ari diren gazte mailakoak esaterako, izotza zela eta, ez zuten Hernaniren aurkako partida jokatu. Lehen mailako gazteak 8 eta 0 galdu zuten, Bergaran. Dirudenez, tirabirak izan ziren epailearekin. Hori dela eta, Mondrak kexua aurkeztuko du federazioan.

Lehen urteko haur mailakoek ere galdu egin zuten 0 eta 4, Sorluzeren aurka. Ohorezko haurrek, bestalde, sekulako gol zaparrada jaso zuten Donostiako Antiguakoaren aurka, 15 eta 8. Neskek, azkenik, jai izango dute aste honetan, Gure Txokoaren aurka 6 eta 0 galdu eta gero.

ESKUBALOA
Gazteak hobeto



Gazte mailako Arrasateko Eskubaloi Taldeak Almenen kontra jokatu zuen

Iturripen joan den larunbatean. Partida nahiko berdindurik joan zen, baina Igor Egaña atezainaren lanak eta Nestor Callejaren golek erabaki zuten lehia, mondragoetarren alde. Aretxabaletarrek ere gol ugari sartu zuten, baina etxe-koek hobeto jokatu zuten. Azken emaitza 28 eta 20, Arrasateren alde.

Senior mailako taldeak, bestalde, iparra aurkitu gabe segitzen du. Larunbatean Portugaleten izan ziren eta partida nahiko berdinduta joan zen arren, azkenean gauzak okertu egin ziren. Balerdi entrenatzaileak aldaketak egiteko aprobetxatu zuen, baina taldeak ezin izan zion bizkaitarrek zuten aldeari buelta eman eta tarte handitu egin zen. Azken emaitza 30 eta 20 izan zen, Portugaletaren alde.

Larunbatean Iturripen jokatuko dute Zumaiako Pulpin taldearen aurka, 17:00etan.

FUTBOLA
Derbi eskasa



Aloña Mendi eta Mondraren arteko norgehiagoka ez zen izan futbolzaleek espero zutena. Bi taldeak saiatu ziren, baina ezin golik sartu. Gainera Jabier Letonaren taldeak ez zuen aprobetxatu oñatiarrak hamar jokalarirekin gelditu izana. Gauzak horrela, norgehiagoka 0 eta 0 amaitu zen. Puntu bat besterik ez.

Igandean Urola taldearen bisita izango dute Atxabalpen, 16:15etan.

Jabier Letonak Kepa Pajares eta Gorka Errekalde jokalarirekin ere izango ditu taldean. Biak dira gasteiztarren azken fitxajeak.

Beste mailetan ere ez ziren fin aritu futbolariak. Ohorez-



Arrasateko OSASUN GIDA

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎ 943 77 13 34

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B..... ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Bailarako Kirol Zerbitzuen sariak


Joan den larunbatean Deba Garaiko Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuak "Challenge"ko trofeo banaketa egin zuen, Osintxuko Txuringo jatetxean.

Hantxe bildu ziren Oñati, Bergara, Mendaro, Ermua, Eibar eta Arrasateko squash, tenis, frontenis eta palako kirolariak. Lau kirol hauetan hiruna sari banatu ziren. Puntuazioa urtean zehar jokatuako txapelketa guztietan ateratako batezbestekotik atera zen

Mondragoetarrak palan, squashen, tenisean eta frontenisean aritu diren arren, ez zuten lehen tokirik eskuratzerik lortu. Baina ez ziren esku hutsik etorri. Ez horixe!

Garitaonaindia anaiek hirugarren tokia lortu zuten palan. Lehenengoak oñatiarrak izan ziren. Bigarren saria Mendarora eta Ermura joan zen.

Squashean Jose Gorosabel hirugarren izan zen. Frontenisean, bestalde, Alberto Azurmendik eta Pello Orobengoa-ak brontzezko garaikurra jaso zuten. Tenisean Roberto Irizar oñatiarra izan zen lehen sailkatua eta zilarra Jose Caba-



Garitaonaindia anaiek hirugarren egina zuten palan.



Hurtado eta Izquierdo bigarren izan ziren frontenisean.

llero arrasatearrak eskuratu zuten. Atzerago Oñatiko Ismael Zubia gelditu zen.

AURRERA BEGIRA

Iaz hasi zen kirol txapelketen zirukuituak izan duen harrera ona ikusita, Deba Garaiko

Kirol Zerbitzuak eskaintza indartzea eta zirukuitua beste kirol batzuetara hedatzea erabaki du. Hori dela eta, esku-pilota ere sartuko da.

Egitasmo hau kirol taldeetan aritzen ez diren kirolariei eta lehiari sartu nahi dutenei

begira antolatu da. Txapelketa bi aldi izango ditu. Lehen liga erara jokatu da, denak denen artean. Bigarrena, berriz, kanporaketa modura.

Herrietako txapelketa bakoitzak 8-10 aste iraungo du. Partidak, berriz, asteburuetan jokatu dira. Kirol bakoitzean bizpahiru txapelketa antolatuko dira.

Herriko txapelketan lortu-tako emaitzekin sailkapen bat egingo da eta honekin bailarari dagokion sailkapen nagusia eratuko da. Honela, bailarako txapelketa bigarren sailkapen honetatik aterako da.

IZEN EMATEA

Dagoeneko hasi da II. Kirol zirukuitua. Interesatuak herri bakoitzeko kirol zerbitzura jo dezakete, izena emateko. Deba Garaiko edozein Kirol Zerbitzutako harpideek 1.500 pta. ordaindu beharko dute. Gai-nontzekoek 2.000.

Sariei dagokienez, palan eta frontenisean 32.000 pta. eskuratuko dituzte irabazleek, squashen eta pilotan, aldiz, 16.000.

Denboraldi bikaina San Andresek

Arrasateko San Andres Xake taldeak larunbatean izango du denboraldiko azken partida. Aurrez aurre Oreretako Beraun Bera taldea izango du. Aurreko astean 3,5 eta 0,5 garaitu zuten Lazkaoko laukotea. Laukote mondragoetarrak sailkapeneko 5. tokiari eustea lortu du. Gauzak asko okertu beharko lirake toki galtzeko.

Mondragoetarrek Arrasateko Xake taldeak orain arte lortu duen sailkapenik

onena lortu dute. Lehen aldiz jokatu dute Gipuzkoako preferente mailan eta Josu Tornayk adierazi digunez, "gustura gaude. Lehenengo lau taldeak oso onak dira. Lehenengo jardunaldietan izan genituen emaitza txarrak ikusita, bosgarren tokia ondo dago. Datorren denboraldian saiatuko gara euskal ligarako sailkatzen".

TALDEKIDE BERRIA

San Andres Xake taldea hiru mondragoetarrek eta berga-

rar batek osatzen dute. Datorren urtean, Lasartetik Ortega mondragoetarraren anaia ekarri nahi dute.

GASTEIZKO IREKIA

Otsailaren 13an Arabako irekia hasiko da. Gasteizen jokatu da zazpi errondako txapelketa hau. Jokoa sistema suitzarrean izango da eta Hernando eta Tornay arituko dira banakako txapelketa honetan. Guztira 100 bat xakelarik jokatu dute irekian.

ARETXABALETARRAK GARAILE

Aretxabaletako Xake taldeak denboraldi bikaina egin du. Preferenteko lehenengoak dira eta txapelketa izango dira. Gipuzkoako Banakako txapelketan ere, Fran Miguel 2. izan zen. Arrasatek ez zen inor aritu Gabonetako txapelketan, Donostian jokatu zelako. Tornayk dioenez, "federazioarekin beti izaten ditugu honelako tira-birak, dena Donostian egin nahi izaten dute eta".

AITOR GARZIA, TXALAPARTA IRAKASLEA

“Lehen ohol bakarrarekin jotzen zen txalaparta”

Aitor Garzia 23 urteko arrasatearrak duela lau urte ikasi zuen txalaparta jotzen. Bi arrasatear izan zituen irakasle: Nagore eta Arantzazu. Ospital Zaharrean elkartzen ziren zapatu goizero, eta horrela ikasi zuen txalaparta jotzen. Orain, ordea, bera izango da irakasle Kike Dapenarekin batera Udaleko Gazteria Sailak antolatutako txalaparta ikastaroan.

—Zaila da txalaparta jotzen ikastea?

—Oinarrizko kolpeak jotzen ikastea nahiko erraza da. Maila ona lortzea, aldiz, zailagoa.

—Hau emango duzun lehenengo ikastaroa izango da?


—Ez, hirugarrena. Joan den urtean beste bat eman nuen Arrasaten, Arantzazu Uriartekin orduan. Beste bat ere Aretxabaletan eman genuen.

—Txalapatariak beti bikoteka jotzen dute txalaparta.

—Bai. Jotzeagatik, jo daiteke jende gehiago edo gutxiagorekin ere, baina ez litzateke guk ezagutzen dugun txalaparta izango. Beste perkusio tresna bat izango litzateke. Jende gehiagorekin koordinatzea, ordea, askoz zailagoa izango litzateke.

—Txalaparta aspaldiko musika tresna da. Zein da bere jatorria?

—Hiru teoria nagusi daude. Lehenengoak dioenez, euskal baserrietan sagardoa egiten ari zirela auzokoei deitzeko jotzen omen zen txalaparta. Bigarrena Estrabon historialari erromatarrak garatu zuen. Honek zioenez, erromatarrak Euskal Herrira etorri zirenean, euskal lurrei eraso egin aurretik basoetan hots arraro bat entzuten zen, eta txalaparta izan zitekeela pentsatzen dute. Azkenaren



arabera, berriz, Historiaurrean zaldiek ateratzen zuten hotsa imitatzeke hasi ziren txalaparta jotzen. Hortik omen dator kio izena: zaldi parta, zalaparta...

—Zein prozesu jarraitzen duzu irakasteko?

—Oinarri teoriko handirik ez da behar. Txakuna jotzen ikasten da lehenengo, eta txakunaren barruan sartu behar dira beste kolpeak. Hori da oinarrizko kolpea, eta uneoro mantendu behar da. Gero txakuna ongi ikasita, kolpeekin jolasten ikasten da, baina beti ere oinarrizko kolpea errespetatuz.

—Zenbat oholek osatzen dute txalaparta?

—Lehen ohol bakarrarekin jotzen zen; argazki zaharretan horrela agertzen da, eta Barandiaranek idatzitako testuetan ere bai. Orain, ordea, bi oholekin jotzen da jeneralean, eta hiru edo lau oholekin ere bai.

—Beste materialik sartzea badago?

—Burdina, marmola, harria ere... sartzen dira. Baita ohol tropikalak ere. Hauek oso soinu polita dute.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• ICEXek deituta, atzerriko merkataritza arloan praktikak egiteko bekak, hizkuntzak menperatzen dituzten lizentziadunentzat. Epea: otsailak 15.

• Nekazaritza eta arrantza arloko ikerkuntzan hasteko beken banaketa, arlo bereko lanbide heziketak ikasketak edo lizentziadun, goi mailako ingeniari edo ingeniari teknikoentzat, beti ere ikasketak 1998an edo 1999an bukatzen badira. Epea: otsailak 22.

• “Censolar”en eskutik eguzki-energia programatzailer eta instalatzaile ikastaroa egin ahal izateko diru laguntza deialdia. Epea: apirilak 30.

■ LANA

• Gipuzkoako Foru Aldundiak laneko medikuntzako medikua behar du. Epea: otsailak 11.

• Oñatirako, enplegu teknikaria. Epea: otsailak 15.

• Andoaingo Udalak hainbat postu bete nahi du: 3 udaltzain, lan eta gazteria teknikaria, ingurugiro teknikaria, liburategiko arduraduna eta giza baliabide eta zerbitzu orokorretako teknikaria. Epea: otsailak 17.

• Berriozargo Udalako, gazte eragilea behar da. Epea: otsailak 24.

■ LEHIAKETAK

• 1999ko martxoaren 8ko III. Hormirudi lehiaketa, Arrasateko Emakume Sailak antolatuta. “Martxoak 8: demokrazia ere emakumeontzat” leloa harturik, teknika librean egin ahal izango dira lanak. Epea: otsailak 10.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Txalapartaren jatorriari dagokionez, hiru teoria daude”

Alboka, txalaparta, euskal dantza eta gaur egungo dantza ikastaroak

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Alboka ikastaroa urtarriaren 23an hasi zen, eta San Juanak arte iraungo du. Zapatuero dira saioak, hiru txandatan: goizeko hamarretatik hamaiketara, hamaiketatik hamabietara eta hamabietatik ordu batera. Klaseak Arrasate Musikalen izaten dira, eta irakaslea Sergio Lekuona gasteiztarra da.

Txalaparta ikastaroa datorren ostiral honetan hasiko da, eta maiatzaren 8a arte iraungo du. Arratsaldeko zortzietan izango dira eskolak barikuetan, eta zapatuetan goizeko 10:00etan. Irakasleak Kike Dapena eta Aitor Garzia izango dira. Zigorrolako saloian emango dute ikastaroa.

EUSKAL DANTZAK

Euskal dantza ikastaroa Lore Gazteak dantza taldeak emango du. Bi taldetan emango dute ikastaroa: 10 urtetik 14ra bitarteko gazteentzat otsailaren 17an hasiko da, eta asteazkenero elkartuko dira arratsaldeko 18:30etatik 19:30ak arte. 15 urtetik gorakoena martxoaren 5ean hasiko da, eta San Juanak arte iraungo du. Horiek barikuetan elkartuko dira.

Gaur egungo dantza eta jazz dantza ikastaroa Ana



Sergio Lekuona eta bere ikasleak, iaz emandako ikastaroan.



Txalaparta ikastaroa laster hasiko da.

Mendiolak emango du, Patter-sonen metodoa erabiliz. Zapatu honetan hasiko da ikastaroa, eta maiatzaren 29an bukatu. Eskolak larunbat arratsaldeetan emango dira, Arrasate Musikalen, lauretatik bost eta erdiak arte eta bost eta erdietatik zazpiak arte.

Hormirudi lehiaketa emakumeen egunerako

Arrasateko Udaleko Emakume Sailak hormirudi lehiaketa antolatu du martxoaren 8ko emakumeen egunari begira. Lehiaketa hau hirugarren urtez anto-

latu du jarraian, eta "demokrazia ere, emakumeontzat" da aurtengo lehiaketako leloa. Lanak aurkezteko epea otsailaren 10ean bukatuko da.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72

BENGOA

Lurrindegia • Bitxitegia
Opariak

SALGAI

Zerkaosteta, 5
Tel.: 943 79 28 85

Andoni Aizpuru eta aurpegi ezagun ugari ATBn

Eguraldi hotza izan da nagusi azken egunotan Arrasaten eta inguruotan. Hotza ez da Andoni Aizpuru ETB1eko Bertatik bertara saioaren aurkezle eta eguraldi gizonarentzat ATBra etortzeko oztopo izango, ordea. Kaleidoskopia saioan izango da, Unai Iparragirre eta Aitziber Langaranen programan kontu-kontari. Ostegunean, beraz, Euskal Tebistaren katean ezezik, Arrasate Tebistan ere Andoni Aizpuru hitzontzia ikusi nahi baduzu, piztu tebista gaueko 21:30etan!

AURPEGI EZAGUNAK ATB-N

Horretaz gain, ATBk bederatzi urte beteko ditu otsailaren 13an. Bederatzigarren urteurrena ospatzeko, programa berezia izango da ostiralean, gaueko 21:30etatik aurrera,

Marijo Deograsiasek aurkeztuta. ATBn lanean aritutako baina aspaldian ATBn ikusi gabeko hainbat aurpegi ezagun ere etorriko dira saio horretara. Besteak beste, Anne Igartiburua, Anuska Lasa, Jon Andueza eta Maider Egues izango dira. Ez galdu aukera hau, bada, horrelakoak gutxitan izan dira eta!

MUSIKA KLASIKOA

Baina ATBk egingo duen eskaintza ez da horretara mugatzen. Asteartean Iñaki Olaizola eta Marta Izagirrek Jabiloren alde egindako kontzertuan Arrasate Musikaleko bandak eta Perkusio taldeak eskaintako doinuak ekarriko dituzte Musiklasik programara. Hori asteartean izango da, gaueko 21:30etatik aurrera.



Andoni Aizpuru.



Anuska Lasa.



Ane Igarteburu.



—Maider Egues.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 6	ASTELEHENA, 8	ASTEARTEA, 9	ASTEAZKENA, 10	OSTEGUNA, 11	OSTIRALA, 12
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Munduari bueltaka, Aurrez aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Astebete</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Munduari Bueltaka. Miren Uribetxebarriak iaz Etiopian egin zuen bidaiaren berri emango du.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Munduari Bueltaka (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:00 Aurrez Aurre. Karmele Zuazubiskarrek Joxe Arriaran pilotari ohiaren izango da.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Aurrez Aurre (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Kaleidoskopia. Unai Iparragirre eta Aitziber Langaranek aurkezturik. Jon Garai Kulturako udal teknikaria ekarriko dute, udalaren kultura agendaz hitz egiteko.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezekin.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Kaleidoskopia (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Astebete. Astean zehar gertatu diren berri garrantzitsuen errepasoan, Maider Osak aurkeztuta.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek azken orduko bideo klipak aurkeztuko ditu.</p>
<p>IGANDEA, 7</p> <p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Munduari bueltaka, Aurrez aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete</p>	 <p>Itxaro Zubillaga.</p>	 <p>Gari Kortazar.</p>	 <p>Karmele Zuazubiskar.</p>		

XABIER LAZPIUR (TXIRRINDULARIA)

“Bizikleta gustuko dudalako itzu

Oso gazte zela, irabaz zitekeen ia guztia irabazi zuen afizionatuetan. Indurainen oinordekoa izan zitekeela eta, Etxabarrik Banestora eraman zuen. Osasun arazok, ordea, eten egin zuten, gure inguruko txirrindulari onenaren ibilbidea. Hogeita bost urterekin, utzi egin behar izan zuen txirrindularitza. Orain, berriz, hiru denboraldi geldirik egon eta gero, bizikleta gainean eseri da berriro, afizionatuen artean lehia-tzeko.

— Zerk bultzatu zaitu hogeita bederatzita urterekin txirrindularitza sartzera?

— Txirrindularitza utzi eta gero, bi urte eta erdi egin nituen bizikleta ikutu ere egin gabe, oso lanpetuta nengilako besteak beste. Forum dendan hasi nintzenez, ostera, afizionatuen hautatzaile lanak utzi eta libre nuen denboran bizikletan ibiltzen hasi

nintzen. Kontua da gustura ibili naizela eta lehiatzeko gogoia dudala.

— Zerbait erakutsi beharra sentitu duzu?

— Ez. Badakit lehen erakutsi nuena baino gehiago ezin izango dudala erakutsi orain.

— Osatu zara guztiz?

— Nik dudana arazoa ez da zaintiratu bat bezala osatzen den horietakoa. Mokorrean dut arazoa eta horrek bizkarean eragiten dit. Egun bateko lasterketetan ondo ibiltzen naiz. Arazoa dator itzulietan eta. Profesionaletan ere gaizki nengilako, ze maila horretan ordu asko egin behar baitituzu txirrinduaren gainean.

— Prest zaude profesionaletarantz itzultzeko?

— Asko aldatu be-

harko lirateke gauzak hori gertatzeko. Gainera, ez dut hori buruan. Printzipioz urtebeterako itzuli naiz. Neure buruarekin pozik geratu nahi dut, bizikletan ibiltzea gustatzen zait eta.

— Afizionatuek ez dizute barkatuko tropeleko aitona zarelako; hori badakizu, ezta?

— Ni

mutikoa nintzenezan egurra ematen nien zaharrei; 26 urteko batek ez zidan barrerik egingen niri. Oraingo gazteak guzua bera egiten saiatuko dira ni bezalakoekin. Hauek oso ondo prestatzen dira. Ni, berriz, orain hilabete hasi naiz entrenatzen. Tarte horretan sekulako hobekuntza igarri dut. Badakit ez dela erraza izango, baina prest nago

— Gogor egin zitzaizun lanean hastea?

— Bizikleta uztea egin zitzaidan gogorra, nahiz eta azken urtean banenbilen horretaz pentsatzen. Baina lanean hasteak izugarri lagundu zidan. Gainera, egin ditudan lan guztiak kirolarekin lotuta egon dira.

— Une gaziak ala gozoak. Zer eman dizu gehiago txirrindularitzak?

— Biak, baina gozoak ge-



“Hainbat lasterketetan tokatu zitzaidan Induraintzat lan egitea, oso gustura. Txirrindulari aparta zen. Ez zuen alperlanik agintzen, dena neurtuta eramaten zuen”

li naiz, oraingoz urtebeterako”

hiago gaziak baino. Beti ibili naiz horretan eta ez nuke ezer-gatik trukatu txirrindulari-tzak eman didana.

— **Indurainekin hasi aurretik zure medikua izan zen Sabin Padilla. Esan liteke zuk eraman zenuela Banestora?**

— Sabin gurekin hasi zen txirrindularitzan: Asier Guenetxea, Igor Arroiabe eta nirekin. Banestorekin sinatzera joan nintzanean nirekin etorri zen, aholkulari gisa, eta orduan égin zuen ezagupidea Etxabari, Unzue eta horiekin. Bera ere taldean sartu zenean sekulako lana etorri zitzaion

gainera eta, halabeharrez, niri denbora gutxiago eskaintzen zidan. Hala ere, beti konpondu izan naiz ondo Sabinekin.

— **Nolako esperientziak izan zenituen Baneston eta Euskadin?**

— Baneston tratu hotza izan nuen zuzendarien eta teknikarien partetik. Zenbaki bat nintzen han. Euskadi taldea, berriz, izugarri ondo portatu zen nirekin. Ahal zuten guztia eta gehiago egin zuten, ni ondo jar nendin. Zoritxarrez, arazoa ez zen konpondu.

— **Frantziako txirrindulari profesionalen %60k osasun**

arazoak omen dituzte dopatu egiten direlako.

— Dopinga erabiliko da han edo hemen, baina hortik zehar argitaratu diren gauza asko astakeria hutsak dira. Mediku arrunt batek hartuko balu txirrindulari baten analitika aztertzeko, jakin barik txirrindulari batena dela, ikaratu egingo litzateke. Gauzak bere testuinguruan jarri behar dira.

— **Zergatik gara euskaldunok hain txirrinduzaleak?**

— Euskaldunoi kirola orokorrean gustatzen zaigu: txirrindularitza, futbola, tenisa... Ikustea ezezik, egitea ere gus-


tatzen zaigu. Joan bestela Urkulura, zenbat jende dabilen atxintxiketan edo pasiatzen ikustera.

— **Zeintzuk izan dira zure idoloak?**

— Kelly eta Lemond.

— **Egokitu zitzaizun Indurainekin ibiltzea?**

— Bai. Hainbat lasterketatant tokatu zitzaidan harentzat lan egitea. Txirrindulari aparta zen. Ea nork irabazten dituen bost Tour segidan. Ez zuen alperlanik agintzen, dena neurtuta eramaten zuen. Oso gustura jardun nuen berarekin. ■



weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bergaran. Mazterreka auzoan. Tel.: 943 76 17 49. Gaueko 21:00etatik aurrera deitu.

• Duplex etxebizitza polit bat salgai Erguin kalean. Dena kalera begira. Garaje itxia aurrean. Tel.: 943 77 01 91 (09:00etatik aurrera).

• Etxebizitza salgai Arrasaten, Cordoba y Oro kalean. Tel.: 943 79 51 88 / 943 79 86 40

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Garajea aukeran. Tel.: 943 79 80 44 (deitu 09:00etatik 18:00etara).

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

3. Errentan emateko

• Emakume alarguna ikasle bati (hobe neska bada) logela bat alokatzeko gertu, Bilboko Santutxu auzoan. Metroko sarreratik hurbil dago. Merke. Tel.: 944 33 54 41.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 46 61.

• Etxebizitza alokatu edo osatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 64 04.

• Pertsona bakarrarentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

5. Etxeak osatzeko

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

• Bi mutilek etxebizitza merke bat alokatuko genuke. Beste batzuekin osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

• Etxebizitza bilatzen ari gara. Tel.: 943 71 42 39 (deitu 18:00etatik 21:00etara). Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai S. Andres eskola ondoan; auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

• Garajea salgai Kurtzetxiki kaleko 36an (San Andres auzoan). Tel.: 943 79 41 68 (Andoni).

9. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Zerkaostetan dagoen lurriedegia salgai. Tel.: 943 79 28 85.

• Enpresentzako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

14. Errentan emateko

• Azkar taberna alokatzen da. Udalpe kalea, 6 - behea. Interesatuek tabemara etorri edo 943 79 70 43 telefonora deitu.

• Tokiak alokatzen dira Aretxabaletan (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin). Tel.: 943 79 05 26.

• 75 m²ko lonja bat alokagai Anbotu kalean. Tel.: 943 79 98 07.

• Aretxabaletan taberna bat alokagai dago. Interesatuek berandu deitu 943 79 01 47 telefonora. (Joxe).

• Denda bat alokagai Arrasaten. Tel.: 943 79 08 70.

• Artista: zure obra gauzatzeko toki lasai eta barea behar baduzu, Arrasateetik hurbil, Deba Garaian tailer bat daukat elkarrekin erabiltzeko. Tel.: 943 71 42 86.

15. Errentan hartzeko

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

• Gazte talde batek lokal merke bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 86 08. (Jon).

• Lagun talde batek lokal bat alokatuko luke, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 (Iker). Deitu 21:30etatik aurrera.

LANA

17. Eskaintzak

• Psikologoa laguntza emateko gertu. Tel.: 649 22 51 07.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74 (Goizez edo 20:00etatik aurrera detu).

• Neska prest sukalde laguntzaile bezala lan egiteko edo taberna nahiz jangelako zerbitzari gisa. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 73 42. Beatriz.

18. Eskaerak

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dugu. Deitu arratsaldez. Tel.: 943 79 73 82.

• MCC ezagutzen duen komertziala behar da. Ordutegi librea. Produktu paregabera frogatzeko. Tel.: 943 19 22 65.

• Neska euskaldun bat behar dugu asteburuetarako zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Esperientziadun andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 629 263 945 (20:00etatik aurrera).

• Jatetxe batean zerbitzaria behar dugu asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 95.

• Emakume arduratsua behar dugu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 37 73 (13:00etatik aurrera).

• Euskaraz hitz egiten dakien pertsona baten bila nabil, elikadura

denda baterako. Bezero asko ditugu. Tel.: 943 79 96 39/ 941 60 81 79. (Fernandezez galdetu).

- Alemana ikasi edo hobetu nahi duzula? Alemanian familia jator batekin lan egin nahi baduzu au-pair bezala, deitu 943 79 62 17 edo 004961 542461 telefonoetara.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Enpresa Zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu, 15 urtetik beherakoentzat. Tel.: 943 79 06 39.

- Irakasle ikastetetan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu. el.: 943 79 35 24.

21. Eskaerak

- Akademiak irakaslea behar du arratsaldez eskolak emateko, (EH, BBB, UBI, LH mailak). Tel.: 943 77 11 06.

- Ingeleseko eskola partikularrak har-tuko nituzke. DBHko 3. mailan nabil. Tel.: 943 79 68 84.

MOTORRA

23. Saldu

- Fiat 1 Turbo salgai. 118 cv. 1991 urtekoa, 90.000 km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50.

- Renault 11 GTX salgai. Tel.: 943 79 69 13.

- Renault 5 Turbo salgai. Tel.: 943 776 38 84.

- Ford Courier 18D salgai Matrikula: SS-AN Tel.: 943 79 82 09.

- Golf GTI salgai. Sei urte ditu eta egoera onean dago. Tel.: 608 771 732.

- Trialerako Aprilia Climber salgai. 280cc³, egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

DENETARIK

26. Saldu

- Gela bat eta sofa-ohere bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 41 26.

- Tabako makinak salgai, 100.000 pta. baino gutxiagotan. Tel.: 943 79

87 79 (Maite).

- Auto barruan eramateko haur-aulkia salgai. Tel.: 943 79 44 14 (eguerdian deitu).

- Inauterietarako animalia mozorroa salgai 3-4 urteko haur batentzat. Tel.: 943 79 44 14 (eguerdian deitu).

- Zeharkaldietarako eskiak salgai. Oholak: Rossignol Nepal, 1,70 cm.koak. Fijazioak: Silvretta 404. Tel.: 943 79 51 79. Gaeuz.

- Eskiak salgai (6-9 urteko haurrentzat egokiak). Oholak: Tewnco, 1,50 cm.koak. Fijazioak: Salomon 137. Tel.: 943 79 51 79. Gaeuz.

- Egoera onean dagoen Fagor markako ur termoa salgai. Oso merke. Tel.: 943 79 13 54.

- Bideokonsola salgai, bi kartutxorekin. Megadrive. 10.000pta. Tel.: 943 79 91 77.

- Game Boy bat salgai Tetris eta Stargate jokoekin. Egoera onean. 5.000 pta. Tel.: 943 79 13 96. (arratsaldez edo gaeuz).

- 150 litroko eta bi akumuladore dituen termo ur berogailua salgai. Tel.: 943 76 44 96.

29. Eman

- SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eraman itzazu Zaldispeko apartaklekura edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

- Egoera onean dagoen eta 90 cm.ko luzera duen oheea (koltxoirik gabe) eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 75 (goizetan deitu eta Teresaz galdetu).

- Koltxoiren bat bota behar baduzu, deitu telefono honetara, guk behar dugua eta: 943 77 05 90 (Nagore). Eguerdian deitu.

32. Aurkitu

- Haur baten urrezko eraztuna aurkitu dut. Izena darama. Tel.: 943 71 47 05.

- Joan den larunbatean mendiko maki-la ahaztu nuen Udalako iturriaren ondoan. Tel.: 943 12 67 27 (bestela Amuebladora Mondragonesan laga).

33. Bestelakoak

- Tarot, kiromantzia. Lehena, oraina eta etorkizuna. Argitu zure zalantzak. Tel.: 689 93 60 58.

ARRASATE
ARETXABAETA
ESKORIATZA
LEINTZ GATZAGA

99

adi egon!

GIDA 99 - Leintz Bailarako
Gida Komertziala

zure postontzian aurkituko duzu.

AURTEN ERRAZAGO,
TELEFONO GUZTIAK
AURKIBIDE
ALFABETIKOAREKIN

Ez baduzu jasotzen edo akatsik aurkitzen baduzu, dei egin 943 77 08 15 telefonora edo zuzenean ARKOra etorri. Otalora Lizentziatua, 31 - ARRASATE



Otsailak 4 zitu-
en, 1988ko
Santa Agata
bezperan. Ur-
tero moduan,
Santa Agedako koroak kalera
irten ziren, eskea egitera.
Argazki hau San Andres auzo-
an atera zitzaien.

Lehen lerroan, ezkerretik
hasita, Pedro Kortabarria, Jesus
Mari Perez, Alberto Laskurain
"Txantxiku" eta Jon Ugarte.

Bigarren lerroan, Enrique
Dolara, Manu Piedehierro,
J. Eraso "Txato", Juan Jose del
Valle, Txema Uribesalgo eta
Jose Martin "Txitxarra".

Hirugarren lerroan, Xabier
Talledo, Jabi Okina, Jose Julio
Heriz eta Luis Garcia "Txiki-
rri".

Atzeko lerroan, Bixente
Juldain, Juan Bautista Agirre,
Jesus Mari Zabala, Joaquin
Lagunilla, Ignacio Mujika
"Pitillo", Ismael Errasti, Euge-

nio Gallastegi, Eugenio Etxe-
beste, Eugenio Etxebarria
"Krisis", Jose Luis Heriz, *Txi-
to Agirre*, Antonio Errarte eta
Jesus Mari Iriarte.

Argazkia eta berriemailea:
Txito Agirre



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Arrasateko Herri Eskola

Guztiona. Gustukoena.

- Garraioa dohain
- Jangela subentzionatua

Matrikulatze epea:
Otsailaren 1etik 12ra arte



San Andres: 943 79 20 69



Erguin: 943 79 77 74



Musakola: 943 79 04 49



Institutua: 943 79 44 47

LA MERCED TALDEA (Arrasate - Eibar - Gasteiz - Leioa - Zumarraga)

Esperientzia handiena profesional hoberenekin.

Kalitatea

HAUR hezkuntza
LEHEN hezkuntza
D.B.H.
1etik 16 urterarte

Familiari bizimodua errazten diogu.

ORDUTEGI
MALGUA
07:30etatik 18:00etara

Erraztasuna

Zerbitzu goxo-goxoa.

Zerbitzua

JANGELA
550 Pta.
Eguneko.

Behar baduzu, gerturatuko zaitugu.

AUTOBUSA
5.000 pta.
Hilean

Esku-eskura

Espezialistarik hoberenak txikientzako, prezio txikian.

Prezioa

HAURTZAINDEGIA
1etik 6 urterarte
6.000 pta. Hilean.

GEHIAGO
GUTXIAGOGATIK



la merced
IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73 Faxa: 943 79 20 97 ARRASATE